



Foto: Manu Uriarte.

PARTZONERIA ALTZANIA-URBIA-OLTZA

Artaltza

Nork ez ditu toki eder hauek ezagutzen? Egunoroko eginkizunak eta arazoak alde batera utzi eta zenbait aldiz ez ote gara arnas-berritzera eta gure irudimenari libre utziz toki eder paregabe hoietan gure bizitzako ametsik ederrenen bila joan?

Bainan, gaurko gure «zibilizazio» hau ere iritxi da (edo ia iritxitan aurkitzen da beintzat) toki zoragarri hoietara ere bertako edertasunak eta pakea arrisku bizian jarriz.

Gainera datorkien ekaizteari aurpegi emateko, Gipuzkoa eta Arabako Partzoneria osatzen duten herriek Partzoneriaren araudia gaurkotu digute. Aurrera jarraitu baino lehen esan dezadan Partzoneria deritzan partzuergoa legalki 1430. urtean sortu zela, Araba eta Gipuzkoako partaideek San Adriango koban sorrerako agiria onartu eta izenpetu zutenean.

Mendigoizaleoi dagokigunez, araudiaren zenbait punturen berri izatea guztiz beharrezkoa ikusten dut, gero, gure ibilaldietan zehar kontuan izan ditzagun. Kontu egin dezagun, mendi hoiien etorkizuna neurri handi batetan mendigoizaleori eskuetan dagoela. Hona hemen araudiaren zenbait puntu:

«...Partzoneria osatzen duen mendialdea egoera kritikoa aurkitzen da, eta zori txarretik txarragora doanez, benetan kezkarri da.»

«...Premia biziko arazoa da natura eta ingurumaria zaintzea... ahal den neurrian, turismoarekin eta kirolgintzarekin parekatuz.»

«Larren baliakuntza eta arboladien desarrolloa, batak bestearekin kalterik ez egiteko eran arautuko dira...»

«Partzoneriako mendi-bideetan ibiltzeko, Partzoneriako baimen berezia eta idatzia beharko dute izan ibilgailu motor-dunak...»

«Berezko zenbait paisajeren hondamen, desitxuratzeko edo narrasteari bidea mozteko, zenbait sarbidetan hesi eta langa egokiak jarriko dira...»

«Altzania eta Urbia-Oltzan seinalatuko diran akanpaleku egokiak, eta haietan bakarrik jarri ahal izango dira mendidetak.»

«Debekaturik dago elkarte honen mendi guztietan irrati, telebista, magnetofono edo diskogailu guztien erabilera. Artzaiek eta mendiko langileek bakarrik erabili ahal izango dituzte horrelako tresnak.»

«Edozein material ez-natural, urruti egoteagatik, zakarrontzietara bota ezineko litzatekeena, lurperatu egin beharko da, aski sakon.»

«Mendi-bide berriak egiterakoan, ahal den neurrian parajemotari begiratu zaio, galtzada eta aztarren historikoak errespetatuz.»

Garrantzisko puntu hauek guztion onetan kontuan hartuko ditugun uste osoa dut,

Edozein modutan ere, mendigoizaleok gaiari buruz elkarren eritzien berri aldizkari honen bidez izatea ez litzake, ene eritzilapalean, batere gaizki egongo. Guztiok dugu hitza.